



Zerk erakartzen gaitu krimenen narrazioetara, gutako edonoren baitan hiltzaile estali bat badela susmatzeak edo irudimenak, baina izan fikzioaren bitartez, izan dokumentazio lanez, ba da krimenak adina interes pizten duen gairik? Errealitate tanta batzuekin eta fikzio lurruneekin osatu du Ferdinand Von Schirach abokatuak (Munich, 1964 ) 11 ipuineko bilduma hau, azken urteetan Alemania astindu duten eta berak ikertu izan dituen hainbat krimen kontakizun bihurtuz, gizakien bizitzen gorabeheraz jardun nahian, dioskunez.

Pertsonaiak eraiki dituen moduagatik edozein hiltzaile bihur daitekeela pentsatzera garamatza, halabeharrak, beharrak edo usteek akuilaturik. Liburuko merituatarik bat besteak eta kriminalak bereizten dituen hesia behera botatzea da, normaltasunaren eta kriminaltasunaren mugak dantzaraziz.

